




Togo iparraldeko haurrentzako kalitatezko lehen hezkuntzako programa sendotzea

1. Kokapena

Togon burutuko da proiektua, herrialdearen iparraldean Sabanen Eskualdean (Les Savannes). Sabanak eskualdea, Togoko iparraldeko muturrean dago, ia 8.500 km²-ko azalerarekin. Populazio handiko eskualdea da, 660.000 biztanle inguru ditu. Nekazal-ingurunea da. Bertako hirigune bakarra Dapaong da, eskualdeko hiriburu administratibo, ekonomiko eta komertziala.

2. Proiektuaren aurrekariak

Badira 35 urte Dapaong-eko Elizbarrutiak hezkuntza eta oinarrizko garapen programa honi hasiera eman ziola, eskualdean lehen mailako eskolatze osoa eta kalitatezkoa lortzeko asmoz. Hori lortzeko, Elizbarrutiak nutrizio zerbitzuak, oinarrizko osasun zerbitzuak eta ur hornidura ere barnean sartu zituen.



Duela 30 urtetik hona, La Salleko Anaiek zuzentzen dute Elizbarrutiaren programa hau. Programaren hazkundea, bereziki azken 20 urteotan, izugarria izan da: 20 eskolatik ia 70era pasa dira. Hala ere, oraindik urrun daude eskolatze osoa lortzetik, batez ere nesken artean.

Urte hauetan eskola kopurua handitzeaz gain, are ahalegin handiagoa egin da eskola horietan ematen den lehen hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta gurasoak beren alabak eskolatzearen garrantziaz ere jabetzeko, semeekin egiten duten bezala.

3. Proiektua bera

Proiektu honen bidez zonaldeko hezkuntza-mailako baliabideen eskasiari erantzun nahi zaio. Proiektuak bi ardatz hauek izango ditu:



1.- Eskoletako irakasleen formazioa hobetzea, sareko hainbat landa-eskoletako 10 irakasleren formazioarekin eta eskola-akonpainamendu pedagogikoaren indartzearekin batera.

Horretarako, besteak beste, 9 hilabeteko ikastaroa eskainiko zaie irakasleei, klaseak goizez eta arratsaldean banatuta, astelehenetik ostiralera. Programa, oinarrizko irakasgai hauetan egituratuko da:

- Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Alfabetatzeko Ministerioaren eskola-eskuliburu berrien gaiak eta beraien erabilera garatuko ditu: haur-psikologia, baliabide didaktikoak, frantsesa, katekesia, eskola-legedia, eskola-ekonomia, garapenerako hezkuntza, osasun-hezkuntza, ingurumen-hezkuntza.
- Praktikak egingo dituzte Dapaong-en elizbarrutiak duen lehen hezkuntzako eskolan (bigarren hiruhilekotik aurrera).
- Haurren Zuzenbideari eta Giza Eskubideei buruzko gaikuntza ere izango dute (ikus-entzunezkoen laguntzaz).

2.- Eskoletako Kantinak izeneko jarduerari laguntzea (eskola-jantokiak), ikasle asko ikasturtea jarraitu ahal izateko zerbitzu horren beharrean delako.

Eskoletako kantinen programa eta ikasleen elikadura orekatua babestea, oso beharrezkoa dira:

- Familiaren egoera ekonomikoa eskasa delako eta elikadura-ohitura txarrak dituztelako.
- Astean hiru egunetan ematen zaien elikadura-laguntzak bi funtzio garrantzitsu betetzen ditu: oinarrizko premia bati erantzutea elikadura eskasa hobetuz eta eskola-errendimendua ahalbidetzea.



Eskoletako kantinen programak bere gain hartzen ditu:

- Sareko eskoletarako oinarrizko elikagaiak erostea.
- Elikagaiak sareko eskoletara garraiatzea eta banatzea.
- Kantinen funtzionamendua (astelehena, asteartea eta osteguna).

4. Onuradun zuzenak

- Prestatutako irakasleen 10 eskoletako ikasleak izango dira (1.200): 564 neska eta 636 mutil.
- Eskolako kantinei dagokienez, proiektu honetan parte hartuko duten 46 eskoletako ikasleak ere onuradun izango dira (10.225 ikasle): 4.806 neska eta 5.419 mutil.

5. Proiektuaren kostu osoa: 31.500 €

- | | |
|------------------------------------|----------|
| 1.- Eskoletako ikasleen formazioa: | 11.500 € |
| 2.- Eskoletako kantinak: | 20.000 € |

